

MUSIKA BIZI EZAN/EZAK!

ARTISTAREN EZAGUTZEKO IKERKETA FASEA


ØDEIREN AURKEZPEN INTERAKTIBOA



MUSIKA KRITIKA



MALETA IBILTARIA



TESTUAN MURGILTZEA





TESTUAN MURGILTZEA

Maila:

Saio kopuruak:

- Ordu bateko saio bat

Gaitasunak:

Frantziako Hezkuntza Nazionaleko buletin ofiziala / Bigarreneko atzerritar eta eskualdeko hizkuntzen programa:

Axe 5 : Créer et recréer

- Compréhension de l'oral et de l'écrit:

- S'agissant de sujets assez familiers, il peut comprendre les principaux points de textes et d'interventions complexes et d'une certaine longueur, en distinguant faits et points de vue, en identifiant des détails pertinents, en repérant la structuration chronologique, discursive et argumentative, en étant éventuellement aidé, à l'oral, par la présence d'un plan accompagnant l'intervention. Il peut comprendre la plupart des reportages ou films en langue standard et identifier le ton, l'humeur, l'intention ou le point de vue du locuteur.

- Expression écrite et orale:

- Il peut développer de manière claire, détaillée et cohérente une gamme étendue de sujets en relation avec son domaine d'intérêt, y compris, à l'oral, en s'écartant spontanément d'un texte préparé pour s'adapter à son public. Il peut dire de façon détaillée en quoi des évènements et des expériences le touchent personnellement. Il peut développer méthodiquement une argumentation en mettant en évidence les points significatifs et les éléments pertinents, par exemple pour écrire une critique de film ou de livre ou pour produire une synthèse.

Oinarrizko jakintzak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma / Laugarren maila:

- A - HIZKUNTZA ETA BERE HIZTUNAK:

- Bizitza pertsonaleko eta eskola eta gizarte-bizitzako askotariko esparruetan euskararen erabileraren aldeko interesa, ekimena eta portaera proaktiboa.

- B - KOMUNIKAZIOA :

1. Testua eta testuingurua:

- Komunikazio-egitatearen osagaiak: egoeraren formaltasun-maila eta izaera publiko edo pribatua; solaskideen arteko gizarte-distantzia; komunikazio-asmoak eta xedeen interpretazioa; komunikazio-kanala eta komunikazioan hitzezkoak ez diren elementuak.
- Euskal musika-ondare tradizionalaren eta garaikidearen erreferentziazko abestiak.

3. Produkzioa:

- Pentsamendua antolatzeko eta emozioak kudeatzeko idazketaren erabilerak: idazketa automatikoa, oharrak hartzea, eskemak, buru-mapak, antolatzaile grafikoak, definizioak, laburpenak, eta abar.

6. Hizkuntza elementuen onarpena eta diskurtso erabilera:

- Kohesio-mekanismoak identifikatzeko, ezaugarritzeko eta erabilera gogoetatsua egiteko estrategiak. Testu-lokailuak (banatzaileak, ordenakoak, kontrastekoak, azalpenekoak, kausazkoak, ondoriozkoak, baldintzazkoak eta hipotesikoak) eta barne-erreferentziako mekanismo gramatikalak eta lexikoak (esanahi abstraktuko nominalizazioak eta hiperonimoak...).
- Testuen hizkuntza-zuzentasuna eta berrikuspen ortografikoa eta gramatikala. Euskarri analogikoko edo digitaleko hiztegien, kontsulta-eskuliburuen eta zuzentzaile ortografikoen erabilera.

Euskarriak eta iturriak:

- Ikasle-fitxak
- Pistak zuzenketarako
- Bideoklipa

TESTUAN MURGILTZEA

Bukaerako ekoizpena eta urrats ezberdinak:

- 1. saioa:

> Irakasleak ariketaren helburua azaltzen die ikasleei : ØDElren kantu baten testu bat eta bideoklip baten aztertzea.
1) Kantua entzutea
2) Kantua berriz entzutea hitzekin begi pean
3) Bideoklipa ikustea
4) Ikasleek galderak irakurtzen dituzte irakaslearekin eta bakarkako gogoeta hasten. Ariketa autonomian egiten dute, introspekzio moduan, irakaslearen laguntzarekin. Bukaeran, irakasleari itzultzen diote.

- 2. saioa:

> Ikasleek (bakarka): irakasleak galdeketak itzuli ondotik, zuzenketak edota eranskinak egiten dituzte.
> Talde ttipietan edo binaka: galdera/erantzunak irakurtzen eta komentatzen dituzte.

- 3) topaketa baino lehen:

> Irakasleak: ikasleen erantzunak bidaltzea artistari.

- 4) Topaketa:

> Erantzunak partekatzea edota konparatzea artistarekin: interakzioa ikasleekin.

Helburuak edo irizpideak eta autoebaluazioa:

- Galdera guziei erantzun dut.
- Gogoeta pertsonala eraman dut.
- Ene ezagutzak eta ene esperientzia pertsonalak mobilizatu ditut galderei erantzuteko.
- Erantzun zuzenak idatzi ditut: gramatika eta ortografia.

Talde lana:

- Lehen fasean: bakarkako gogoeta.
- Bigarren fasean: erantzunen partekatzea gelakideekin.
- Hirugarren fasea: erantzunen partekatzea artistarekin.

NUN DA WALLY ?

1. Azpian duzun testuan dauden hutsuneak bete

JATORRIZKO TESTUA:

Nor da nor eta nun da Wally?
Nun da Wally? Erran nun den Wally?

Etxetik atera zortziak aldera ez dakit gaur bera berriz ene zai zen
Atetik atera eta berriz berbera militarrak Maubec karrika apaintzen
Lau daude izkinan betiko errutinan, ze deseroso naizen
Milaka haur hil dituzte Palestinan eta hemen txakurrak Sinagogak zaintzen

Berak egun on nik uko beri
Ziria ez dit sartuko neri
Ahaztu komeri guziak, segi
Hauei paso kaso lekukoeri
Bi ile apaindegi, kebabak beste bi,
Eskegi dituzten panelei bi begi,
Hor ditut zai beren-beregi
Horrelakoei bai egun on deneri,

Gero PMUra, terrazan eseri kafea ta ura,
Ta hau zer dugu ba ? dena da pario kario da duda
Soldata ttikiak, desioen muga, kartoizko zatiak, sosaren kultura,
Nik kafe bat hartzen ari naiz eta jendea etxea uztera heldu da

Bakotxak bereari dale, gaur eskupekorik ez bela
Ez naiz diferentzien zale, banoala, natorrela,
Ikusten dut kale ertzean eskale bikote bat, zerupea du hotela
Erraten da ahazteko edaten dela, ba uste dut ahantziek edaten dutela

Nor da nor eta nun da Wally?
Nun da Wally? Erran nun den Wally?

Etxegarayren garbiketa
Etxe garaiak garbi eta
Leku bat duzu baldin eta
Sartzen bazira baldintzetan
Bizirauteko ariketan
Bi urrats ta zubia
Aturrik hain urri ez du irudia
Odolez bustia bandera guziak
Nun ote da beltz berde gorri zuria?

Geltokitik geltokira,
Gaur nor doa zentzu egokira?
Mitoak ez ote ziren erori ba?
Orain erranen dizute « ero dira »
Ez zazula egin harritua tira
Diote hiria handitu hazi da
Ta nik diot kasu filmatua zira


Lerroan jator, orduari zor, masa dago hor,
Jendeak lehenbailehen iritsi nahi luke eta autobusa berandu dator
Nork kiskali nahi du mila zor zonbiak baikor lanera bidali
Autoen motor guziak itzali erran nor den nor eta nun den Wally?

BIDEOKLIPERAKO LOTURA:

https://youtu.be/ZAPL_EdKUH0?si=Bh7VGx9eHP6KJ_qR



Aipua: "Nun da Wally ? Erran nun den Wally?"



Aipua: "Hemen txakurrak Sinagogak zaintzen"



Aipua: "Etxetik atera zortziak aldera"



Aipua: "Ta nik diot kasu filmatua zira"

2. Bi kopla hauetan dauden errima familiak azpimarra itzazu kolore desberdinekin:

Etxetik atera zortziak aldera ez dakit gaur bera berriz ene zai zen
Atetik atera eta berriz berbera militarrak Maubec karrika apaintzen
Lau daude izkinan betiko errutinan, ze deseroso naizen
Milaka haur hil dituzte Palestinan eta hemen txakurrak Sinagogak zaintzen

Bakotxak bereari dale, gaur eskupekorik ez bela
Ez naiz diferentzien zale, banoala, natorrela,
Ikusten dut kale ertzean eskale bikote bat, zerupea du hotela
Erraten da ahazteko edaten dela, ba uste dut ahantziek edaten dutela

3. Galderak:

1-Zein da bideoklipean agertzen den eta kantuak aipatzen duen hiria? (Zure erantzuna froga ezazu)
"Maubec karrika" Baionako Santespirituko karrika ezagun bat da.
"Etxegarrayen garbiketa", Jean-René Etxegaray Baionako auzapeza da 2014etik.
"Aturri"Baiona zeharkatzen duen ibai nagusia da.

2- Zein da zure ustez ØDEIk kanta honekin pasa nahi duen mezu nagusia?
IKASLEAK BERE IRITZI PERTSONALA, BERE HAUTEMATEA ETA SENTIMENTUAK ADIERAZI BEHAR DITU.
zenburuak galdera bat pausatzen du: "Nun da Wally?" Errepikan, ØDElek galdera bi aldiz jarraian errepikatzen du, eskaera azpimarratuz "erran" hitzari esker. Desagertze kezkagarri bati pentsa dezakegu.
Baina, aldi berean, "Nun da Wally?" komiki ezagun bati erreferentzia egin dezake ere bai: "Non da Charly?". Martin Handfordek sortutako britainiar liburu-joko bilduma bat da. Irakurleak Charlie izeneko pertsonaia irudi baten barruan aurkitzea lortu behar du. Zailtasuna da Charlie agertzen den lekuak oso koloretsuak direla, eta, batez ere, hainbat pertsonaiaz eta objektuz beteak dira.
Bideoklipak ere erregistro komikoa eta dramatikoa nahasten ditu. Bi pertsonaiak ilupean dira Nor da nor? jokoan ari dira, elkarren aurka dueluan ariko balira bezala. Ironia ikus dezakegu gertaldi honetan.
"Wally" ez da frantsez, español edo euskaldun izen klasiko bat. Wally aurkitzeko jolasa gizartean askotan ikusten ez ditugun pertsonak eta beren bizimoduak bilatzeko gonbita izan daiteke.

3- Zein kritika mota desberdin ikusten dituzu kantuan? (Zure erantzuna froga ezazu)
- "Ile apaindegiek", "kebabek", "PMUk" (langile auzoaldeko taberna tipikoak dira) eguneroko bizitzako errealitate sozialari erreferentzia egiten diete.
- "Soldata ttikiak" eta "zonbiak baikor lanera bidali" bizirik iraunteko estrategiei pentsatzera ematen dute.
- "Kale ertzeko eskale bikoteak", "etxera uztera heldu da" eta "ahantziek edaten dutela" aipuek prekaritateari erreferentzia egiten diote.
- Hautu politiko batzuk salatuak dira ere bai: "garbiketa" hitzarekin gentrifikazioa kritikatzen du. Kontrol-gizartea edo segurtasun-politika aipatuak dira "filmatua zira" eta "militarrak Maubec karrika apaintzen" hitzekin.
- Azkenik, Palestinaren egoera eta hautetsi batzuen sustengu eskasa salatzen du ere bai: "milaka haur hil dituzte" eta "odolez bustia bandera guziak".

4- Ondoko esaldian zertaz ari da ØDEI?
« Nun ote da beltz berde gorri zuria? »
Palestinako banderari erreferentzia egiten dio ØDEik. 2025ean, Baionako zubi famatu batean Palestinako bandera ez izateak eztabaida piztu zuen, beste bandera batzuk ikusgai ziren bitartean. Hainbat biztanleek eta kolektiboek egoera salatu zuten.

5-Ondoko esaldian zertaz ari da ØDEI?
« Diote : hiria handitu hazi da, eta nik diot kasi filmatua zira »
Segurtasun edo zaintza kamerak instalatuak izan dira hirian. Segurtasun publikoa, ordena eta terrorismoaren aurkako borroka estatuaren lehentasuna bihurtzen dira, norbanakoen askatasunen kaltetan.

6- Rapa idazterakoan zein da baliabide estilistiko nagusia?
Errima aberatsen sorkuntza eta flowaren kalitatea (hitzen deklamatzeko indarra) garrantzitsuak dira.

7- Lehen orrialdean, bideokliparen fotograma bakoitza kantuaren hitz batzuei lot itzazu.